

iraileko paperak



EGITARAUA

LARUNBATA / IRAILAK 30

- **11:00etan (hitzaldia).** *Perimetro poetikoak XXI.*
mendean: neurtezinaren zirrimarrak. Iratxe Retolaza.
-Lekua: Sociedad Recreativa.
- **13:00etan (errezitaldia).** Aritz Gorrotxategi, Nerea Arrien, Eric Dicharry + Inun musikaria.
-Lekua: San Juan Talako.
- **18:00etan.** *Poeta gazteen ahotsak:* Beatriz Chivite, Itziar Ugarte, Jokin Erkoreka, Libe Goitia eta Martin Bidaurre (Lekitto Musika Bandarekin lagunduta).
-Hasiera: Andra Mariaren Jasokundearen basilikaren aurrean.
- **22:00etan (kontzertua).** Maite Larburu.
-Lekua: Konpainiako eliza.

IGANDEA / URRIAK 1

- **11:00etan (solasaldia + errezitaldia).** Antònia Vicens (poeta) eta Iñigo Astiz (kazetaria eta idazlea).
-Lekua: Sociedad Recreativa.
- **12:15etan (atsedena).**
- **12:30etan (solasaldia + errezitaldia).** Mireia Calafell (poeta) eta Itxaro Borda (idazlea eta euskaltzain osoa).
-Lekua: Sociedad Recreativa.

Sarrera libre eta doakoa ekitaldi guztietara



irailean, irailekoak

EUSKALTZAINDIAK, literaturari dion atxikimendua adierazte aldera, poesiari eskainitako asteburu bat antolatu du estreinakoz.

Luzerako egitasmoa izatea nahi genuke, Euskal Herri osoarentzat, poesiak bere toki-denborak izan ditzan udazkenaren hasieran gure artean, bestelako ekintzekiko lehian sartu gabe, orotariko literatura jardunaldien egutegia osatuz baizik.

IRAILEKOAK, irailean. Espero dugu lehen saio hau ohiturazko hitzordu bihurtzea literaturazaleentzat, topaldi atsegin eta interesgarri. Gonbit honek ez dauka mugaegunik.

Zertarako IRAILEKOAK?

Azken urteotan, euskal poesiak hartu dituen bideei buruz hausnartzeko; poeten lana zehatzago ezagutzen laguntzeko; belaunaldi zahar eta gazteagoen ahotsak eta adierazkerak erkatzeko; harremanak zabaldu eta solasgune berriak sortzeko.

Eta zergatik poesia?

Poesiak hitzen edertasuna agerian uzten duelako; galderak egiten dizkigulako, eta erantzun ere bai; bideak zabaltzen dituelako gure ni sakonaren eta munduaren artean; geure burua ulertzen laguntzen digulako; geure burua nahasteko balio duelako; memoria jasotzen duelako; nor garen gogorarazten digulako; gaitzak ahazten eta beldurra menderatzen laguntzen digulako; kontzientziak astintzen dituelako; sentsazioak pizten dituelako; egia bakarrik ez dagoela erakusten digulako; errealitatearen konplexutasuna aurkezten digulako; mugarriak ipintzen dizkiolako hutsera jotzen ari den artaldeari; azalkeari kontra egiten diolako; ezer ez delako eta, aldi berean, dena biltzen duelako; eskatzen ez duelako eta bai ematen; gogoko dugulako... Eta batzuetan gorroto; poesia... poesia delako.

Portada eta barruko irudiak:
Natalia Suárez Ortiz de Zárate

perimetro poetikoak XXI. mendean: neurtezinaren zirrimarrak

IRATXE RETOLAZA

XXI. MENDEKO euskal poesiaren habitat oparoa hesitzea, sailkatzea eta izendatzea jardun gaitza da, bi hamarkada beteetan askotariko estetikak eta ikuspegiak taxutu direlako euskal poesian. Jardun hori are gaitzago egiten dute bi murriztapen hauek. Bata, denbora-murriztapena, kimatze bat dakarrelako hain habitat joria orri gutxitara ekartzeak. Bestea, ekarpen kritiko eta teorikoen urritasuna, XXI. mendeko poesiaren inguruko irakurketa kritiko-akademiko patxadatsuak eskas izan direlako [1]. Halabeharrez, bada, habitat oparo horren eta eremu neurtezin horren kartografia murriz bat egingo dut, jakinik euskal territorio poetikoen perimetroak hautemanezinak direla, XXI. mendearen hastapenetan neurtezin egin direlako XX. mendearen lehen herenean Euskal Pizkundeak elikatu zuen neurtitz-gosea.

Hala izanik ere, ez diegu merezitako arreta eskaini azken bi hamarkadetako sorkuntza poetikoek eraikitako logika, humus, galdera eta begirada berriei. Euskal kritika poetikoaren, euskal teoria poetikoaren, euskal ikerketa poetikoaren eta euskal historiografia poetikoaren tamaina txikiegia izan da azken urteotan, poesiaren habitat oparoa baino askoz ere txikiagoa.

Lizar Begoñaren poeman pausa gaitzen:

“Norbere tamaina baino txikiagoak diren habitat batzuetan, gorputzak perimetroaz beste hazten dira. Masek gainezka egiten dute, oinak, oin biak, laurak ahazturik osatzen zaie forma era basatian. Eta kontzientzia zehatzik gabe eratzen dira talkek sortutako kurbadurak, hezur-konkorak, ubeldurak, ebakidurak, orbainak. Erantzun ezinezko mundu-estimuluak, bizio segidak, negar eta barreak. Arreta kanporantz esporatzen da”.

Lizar Begoña, Gepardo japoniarrak, Susa, 2022

Poema narratibo honek, neurtitzaren formaz beste egitearekin batera, habitat jakinetan hazteaz, adarkatzeaz eta korapilatzeaz dihardu, baita habitat horretaz harago gainezkatzeaz ere. Euskal poesiaren sorkuntzak bide horixe egin du XXI. mendean zehar: erakunde publiko eta gizarte-erakunde gehienek habitat antzu samarra eraikirik ere, habitat beregaina ontzeko urratsak egin ditu, nahiz eta genero literario kanonikoena ez izan [2].



Genero prestigiotsuena eta kanonikoena ez izateak onurak ere ekarri dizkio poesiaren eremuari milurteko berrian. Hau da, begirada kritiko-arauemaile batek bizkarra emateak bazterreko begiradak, ikuspegiak eta galderak sortzeko genero literario emankor egin du. Kode arautuak eta erretorika arautuak arrotzeko eta auzitan jartzeko posizio interesgarri bilakatu du poesia.

[1] Nolanahi ere, aldaketa-giroa sumatzen da, ziur asko azken aldiko ekarpen poetikoek sorturiko interesetik eratorritakoa, eta pixkanaka-pixkanaka poesiaren inguruko ikerketa-lerro zenbait abiatu dira. Hala izanik ere, ikerketaren esparrutik, literatura-kritika akademikoaren esparrutik, badugu zer egina, habitat bizi garaikide hori arakatzeko, geruzaz geruza ñabartzeko eta historia kulturalaren kateetara eramateko.

[2] XX. mendearen azken hamarkadan nobela izendatu zen genero literario prestigiotsuena, kanonaren erdian kokaturikoa, arreta kritiko eta akademiko gehien jaso dituen.

Abagune hori elikatu dute poesia-eragileek, poetek eta poesiazaleek: ohiko argitaletxeen poema-katalogoek iraun dute -Susa, Pamiela, Erein, Elkar-, XXI. mendeko argitaletxe berriek poesia-sail ugaria elikatu dute -Beta-, poesiaren aldeko ekimen herritar kolektiboek indarra hartu dute -Hatsa elkarte [3]-, poesia-argitaletxe berezituak sortu dira -Balea Zuria [4]-, poesia sariek sustaturiko argitalpenak (Ernestina de Champourcin saria)... Hain zuzen, poesiazaleek eta poetek antolaturiko ekimen horietariko batzuetan garatu dira XXI. mendeko gogoeta kritiko-poetikorik interesgarrienak, eztabaida poetiko emankorrenetakoak (literatura-erakunde akademikoetan baino are testuinguru interesgarriagoak sortuz).

Bi besterik ez ditut aipatuko, hamarkada luzez iraun dutenak, eta zoru berriak eraikitzeak gaitasuna izan dutenak: Herriari Emon Arnasa elkarteak antolaturiko Eako poesia egunak -2004-2018 [5]-, eta Pentsamendua eta poesia jardunaldiak (2008-), Balea Zuria argitaletxearen sorburu izan direnak. Batik bat, tokian tokiko halako poesia-ekimenek hauspotu dute euskal poesia azken bi hamarkada hauetan.



LIBURUAREN ASIMETRIAK

Poesia-liburuen argitalpenei begiratuz gero, nahikoa iraunkorra izan da argitalpen-kopurua XXI. mendeko lehen bi hamarkadatan: hogeitabat liburu argitaratu dira kasik urtero 2001. urtetik 2022. urtera bitarte -salbu eta 2010ean, 16 argitaratu zirela; eta 2015ean, 14 argitaratu zirela-, eta urte batzuetan 30eko kopurutik hurbil ere egon da -2002an, 2004an, 2008an, 2011n, 2016an, 2018an [6]-. Kopuru-dantza horretan, datu bitxi bat dugu 2000. urtean, milurtekoaren atarian: 8 poema-liburu argitaratu ziren, eta horietariko bost idatzi zituzten poeta emakumeek (% 62,5), ohiko estatistikak irauliz.

Izan ere, 2019. urtera arte %10etik %35era arteko tartean mugitu dira poeta emakumeen argitalpenak, gehientsuenetan %20aren bueltara hurbilduz. Ohiko estatistika horiek gauditu dira 2020. eta 2021. urteetan, hurrenez hurren gutxi gorabehera % 52ra eta % 45era heldu baitira poeta emakumeen argitalpenak.

Kopuruak gorabehera, 2000. urteko gertakari ezohiko hark gaur egungo talaatik esanahi berezia hartzen du, lurpetik ontzen ari ziren joera batzuen iragarle eta eragile izan zelako, 2020ko hamarkadako erradiografia berriak ahalbidetu dituztenak.

[3] Hatsa poesia sustatzeko elkarte da, 1989. urtean sortu zena, eta Senperen erroturik dagoena. Gaur egun urtero poesia liburu kolektibo bat argitaratzeaz gain, Poesia egunak eta poesia ekitaldiak antolatzen dituzte han-hemen.

[4] Balea Zuria poesia-argitaletxea 2017. urtean jarri zuten abian Felipe Juaristik, Juan Ramon Makusok, Pello Otxotekok eta Aritz Gorrotxategik. Argitaletxea eratzearekin batera 35 urtetik beherako poetei zuzenduriko lehiaketa jarri zuten abian Donostia Kulturarekin elkarlanean.

[5] Zaldiarri izeneko liburuxka-sorta ere argitaratu zuten, poesiaren inguruko saio laburrak biltzeko. Informazio gehiagorako jo webgunera: <https://hea.eus/poesiaegunak/>

[6] Juan Luis Zabalak 2000. urtetik aurrera eginiko liburugintzaren zerrendatik jasotako datuetan oinarritu naiz, EHUKo Euskal Literaturaren Apalategia webgunetik jasotakoak.

“

Poesia-liburuen argitalpenei begiratuz gero, nahikoa iraunkorra izan da argitalpen-kopurua XXI. mendeko lehen bi hamarkadatan: 20 bat liburu urtero

”

Eta ez bakarrik estatistiken neurriak eraldatzen joan direlako, baizik eta poetika-bide berriak gorpuzten joan direlako, elkar elikatu dutenak, elkarrekiko tentsioan eraiki direnak... Izan ere, halako estatistikek ez dute zertan berez esanguratsu izan, baina izan badira halako zantzu bat, gertaerara hurbiltzeko, eta gertaeraren nolakotasunean arakatzeko. 2000. urteko ekarpen poetikoetara hurbiltzean, agerikoa da urte horretan bildu zirela poetika ikuspegi berritzaileak, norabide berriak zedarritzeko ale izan zirenak. Urte mugarri hartan, menturaz, elkarren artean humus berri bat sortzeko ahalmena zuten poetika zenbait argitaratu ziren, genealogia poetikoen eta poetika garaikideen arteko elkarrikteta biziarazi zutenak. Amaia Lasaren poema guztien bilduma bat argitaratu zen, *Geroaren aurpegia* (EHU) izenburukoa, eta XX. mendean zehar hainbeste harrotu ez zen poetikoa bat berrartzen duena, eta gizarte-eraldaketarantzko bidean kode berri baten bilaketarako aldarria egiten duena, existentzialismoa eta poesia soziala gurutzatzen dituen: “a, e, i, o, u berri bat” leloa akuilu izanik, kode poetikoak birpentsatzeko deia ere bada, arrozte poetikorantzko deia ere bada.

Kode berrien bilaketaren zantzuak sumatzen dira urte horretan plazaraturiko estetika poetiko indartsuetan, guztiak ere zaugarritasunarekin eta berrizendatze-gosearekin uztarturikoak, nahiz eta estetika zein tonu poetiko oso ezberdinetik eraiki poemak: Luigi Anselmiren *Gure ametsen gerizan* (Pamiela), Miren Agur Meaberen *Azalaren kodea* (Susa), Juanjo Olasagarreren *Puskak biziz* (Susa), Tere Irastortzaren *Izen gabe, direnak. Haurdunaldi beteko kanthoriak* (Pamiela) eta Castillo Suarezen *Mugarri estaliak* (Susa). Hasi tonu malenkoniatsu minenetik ironia finerantzko bidean, hasi klasizismo eta kulturalismo kutsuko poetiketarik erretorika soil bezain adierazkorretarantzko bidean.

Joera poetiko horiek guztiek lehen golde-lana egin zuten, euskal zoru poetiko, kultural, sozial eta politikoaren paradigma zenbait mugiarazteko. Bazterreko genero literario poetikoa golde eraginkor bihurtu zen, perimetroak hesitzeko modu berriak irudikatzeko. Zoru hori arrakalatuz joan dira ekarpen poetikoak, XXI. mendearen lehen hamarkadan lehertuko diren paradigma-aldaketen aurretik, eta, ziur asko, leherketa horiek gertatu ahal izateko galderak, zalantzak eta ñabardurak sorrarazi dituzte kode hegemonikoetan.

Hain zuzen ere, XX. mendearen azken herenean euskal gizartea zeharkatu zuten zenbait gatazka paradigmatikaz aldatu dira XXI. mendearen lehen hamarkadan zehar (Euskal Herriko Mugimendu Feministaren biziberritzea, LGTB kolektiboen indartzea, ETaren desarmatzea, hizkuntza-gatazka ikusezinagoa egitea, krisi ekologiko eta klimatikoa, migrazio-mugimenduek sorturiko erroka berriak...). Paradigma aldaketa horiek 1960-1970eko hamarkadetan sendotutako imajinarioak auzitan jarri dituzte, baita poesian erroturiko imajinarioak ere. Zoru mugikor horretan XXI. mendeko poesiaren askotariko moldeetan errepikakorra da (des)errotzearen imajinarioa, noraezean jardutearen sentsazioak eraginda.

Ulertzekoa da alderrai ibiltzearen sentimendua, eta heldulekuen bilaketa, edo munduan kokatzeko eta habitat berriak sortzeko kode berrien bilaketa. Habitat oparo hori hesituko dut atalez atal, kartografia baten lehen zirrimarrak egiteko, oharturik hesi arteetan ere gainezka egiten duten poetika ugari txirikordatzaren direla.



GORPUZTASUNAREN DIAMETROAK

Giza gorputzak gurutzatzen dituzten poetikak ugaritu egin dira XXI. mendean zehar, tantaka eginiko bide zena joera esanguratsu bihurtuz. Subjektu gorpuztu horietan gizarte-gatazkak ikusarazteko eta berrizendatzeko poetikak eraiki dira, gehientsuenetan subjektu azpiratuek edo baztertuek gorputza eginik borroka-eremu eta izendatze-eremu: emakume izendaturiko gorputzak, desira homoerotikoak edota desira ez-heteroarautuak haragiztatzen dituztenak, gorputz gaixoak, gorputz zahartuak... Bazterreko gorpuztasunetik diharduten poetikek gorputz-zapalkuntzak arrakalatzearekin batera ahots gorpuztu ahaldunduak eta kode berriak eraiki dituzte. Sarritan, beraz, subjektu azpiratuaren ifrentzua eta iruntzia irudikatzen dituzte poetika horiek: alde batetik, zapalkuntzek sorturiko bortxak izendatzen dira, eta beste alde batetik, erresistentziarako eta eraldaketarako erretorikak sortzen dira. Pausa gaitezen Miren Agur Meaberen *Azalaren kodea* bilduman, ifrentzu eta iruntzi horren ikur diren poemetan:

Antsien oharrak - 2

Haragiak eta haragiak daude.
Nik haragi berri batekin egiten dut amets.
Haragi horren atomoeak elkar maite dute
ez dutelako ezagutzen
ez jogurt desnatatuen iragarkirik
ezta jantzi-dendetako tailen koderik ere.
Haragi horretako zeluletara ez da sekula iritsi
konparazio hitzaren oihartzunik.
(...)
Haragi horretan ez dago birus maltzurrik sorgor,
ez baita sentikorra ispluekiko.
Eta bikain burutuko lituzke sintesi-erreakzioak
nire burmuinaren eta hezur-mami-azalen artean.

Memoria ez galtzeko oharrak - 3

Euria ari zuen nire klitori gainean.
Tximistak lir-lar zetozkizun paparrera:
odoletan zeundela zirudien.
(...)
Zure sexuak kearen usaina zuen,
nabarra eta zaharra.
Aldiz, ni urdina omen nintzen
eta oxigenoa lapurtu zenidan
neure zulo arrosetatik.
Zure hatz marroiak nire baginan,
udagoieneko adar zurrinak.
(...)
Bularrak lehertu guran nituen.
Euria ari zuen nire klitori gainean.

Lehen poemak edertasun-kanonak sorturiko zauriak eta hersturak ditu hizpide, eta bigarrenak, aldiz, desiraren haragiztatzea kontatzen du, eta subjektu femenino desiratzaile eta ahaldundu batek larru-esperientzia nola bizi duen irudi iradokitzailez deskribatzen du, desira-goseak harturik dagoela.

Azalaren kodea akuilu izanda, genero-rolak auzitan jartzeko eta gorpuztasun generizatuak birpentsatzeko ekarpen poetiko interesgarriak garatu dira mende hasiera honetan, oso posizio eta begirada ezberdinetatik bada ere. Halako batzuek feminitate-ereduak eta feminitate-kodeak zartatzen dituzte, birkokatzeak egiteko, desplazamenduak egiteko: Leire Bilbaok *Ezkatak* (2006) bilduman nortasunaren eraikuntzaren mugez jarduten du, ezinaren geruzetan arakatu du, irudi indartsu askoak eraikiz, paradoxaz zein kontrastez beteriko sinbolo eraginkorrek sortuz, eta herri arrantzalearen oihartzunez jositako imajinarioan murgilduz, nortasun kolektiboaren zein pertsonalaren arteko gurutzatze horietan arakatzeko. Ione Gorostarzu, aldiz, *Des egiten* (2012) bilduman ahots zuzen eta gordin baten bitartez mintzo da genero-imajinarioa deseraikitze premiaz. Pausa gaitezen *Des egiten* bildumako poema honetan:

Asko ibili ohi dira

Asko ibili ohi dira ene gorputzean sartu-ateran
maitasunaren izenean
aterik jo gabe batzuetan
bisita laburrean besteetan

Amodio batzuk buruan sartzen zaizkit
eta kontu kontari aritzen bakarrik nagoela ere
horrelakoetan maitasuna geldoa da
txiskeroarekin ere pizten ez den txinparta

Beste batzuk bihotzera doaz zuzenean
eta odolezko ibaiak azalean zehar barreiatzen ditu
horietan sentimendua indartsua, beroa da
egur onarekin egindako sua

Badira hanka-tartean baino sartzen ez zaizkidan gonbidatuak ere
kafea hartzen geratzen ez direnak
horietan maitasuna gartsua da
egunkari orriekin egindako suaren moduan
bat-batean hazten da indartsu
baina itzali ere, berehala itzaltzen da
kerik, errautsik utzi gabe



Sexu-jarduna eta maitasuna ulertzeko modu ugari bizi ditu subjektu poetikoak, maitasunaren zein emakumetasunaren irudi erromantikoa auzitan jarritz, maitale adina maitatzeko modu eta larrualdi daudela iradokiz.

Beste gorputz-esperientzia bati ere heldu diote poeta batzuek, amatasunaren esperientziari: Tere Irastortzak *Izen gabe, direnak. Haurdunaldi beteko kanthoriak* (2000) bilduman soiltasunaren eta zehaztasunaren bidetik jorratu zuen bizipena, euskal tradizio literarioarekin elkarrizketak sortzearekin batera, beste poesia-lan batzuetan egin bezala, tradizio hori birkokatzeke, berrasmatzeko, berrizendatzeko; Ione Gorostartzuk *Ez da erditzea* (2019) bilduman berriro ere hizkera zuzenari heltzen dio, bizipenak sorturiko aukerez eta mugez jarduteko, baita amarekiko eta senideekiko harremanez jarduteko ere; Leire Bilbaok *Etxeko urak* (2020) bilduman sinbologia eta hizkera metaforiko biziaren bitartez irudikatzen ditu amatasunak gorputza zeharkatzean sorturiko dardarak, zalantzak, galderak, zauriak, pozak. Pausa gaitezen amatasunaz diharduten bi poemotan:

Aurreko

AURREKO hilabeteotan ez dut hitzik idatzi:
zuretzako hustutzearen espazio guztiak.
Aurreko hilabeteotan ez dut ezer irakurri,
nire baitan zinen: asmakizun.

Tere Irastortza

Erbestea da amaren gorputza

Erbestea da amaren gorputza
hats-herria
desordenaren bazterra
leku zauritu zatitu arrakalaz josia
samurtasun oldarkor batek hartua
haragi mailatu maitatu
orografia hautsia.
(...)
Mintzaira sortu aurreko taupadak
bizi diren lurraldea da
amaren gorputza.
Erbeste egin naiz.

Leire Bilbao

Alde batean, beraz, haurdunaldiko sortze-denboraz diharduena, eta beste aldean, erditu osteko gorputza, amatasunaren esperientziak zeharkatu duena, desplazaturik gertatu dena. Alderik alde, ikuspegiz ikuspegi, amatasunaren imajinario hegemonikoa deseraikitzeke edo ñabartzeko ale dira halako poetikak.

Gorputz-kodeetan arakatzuz gero, izan badira desira poesiagai dituzten bildumak, sexualitate heteroarautuaren imajinarioak arrakalatu dituztenak. Juanjo Olasagarrek *Puskak bizi* (Susa, 2000) argitaratu zuen, *Bizi puskak* (Susa, 1996) bilduma polifonikoaren segida dena, bertako pertsonaia batzuekin batera berriak ere aurkezten dituela.

“
*Gorputz-kodeetan arakatzuz gero,
izan badira desira poesiagai
dituzten bildumak, sexualitate
heteroarautuaren imajinarioak
arrakalatu dituztenak*
”

Bi bilduma polifoniko eta dialogiko horietan, fikziozko pertsonaiek ahotsa hartzen dute poemen bitartez, eta ahots-sare horren bitartez euskal komunitatearen, sexualitate arautuaren, familia-egituraren eta gatazka armatuaren hainbat zentzu arrakalatzen dira, galdera berriak sortuz, betiere gizarte-ahotsei bide emanez (eta gizarte-erakunde zein gizarte-geruza horiek guztiek elkarri oihartzun egiten diotela iradokiz). Pausa gaitezen poema batean, Txema Kortesek EHGAmeke militanteari ahotsa eman dion poeman, ahots-sare eta ahots-oihartzun horien nolakotasunaz ohartzeko:

Txema Kortesek Joxema Irutagoieni

Ez da amodioa biren arteko afera
baizen eta ideia eta banakoaren artekoa,
arima eta arimaren konprenitzea, onanismoaren gaztigua.
Eta hala ere, handiak dira haragiak eta haragiaren amodio
desordenatuak
egiten dituen kalteak, galerak eta eroriak.
Handiak dira, halaber, haragiaren bentzutzeko
ematen diren konbatak, gerlak eta gudak.
(...)

Presuna amorosak ez dakusa, ez daki zer ari den,
gogo guztia haragian dauka
nik orain nire gogo guztia zугan daukadan bezala.
Halatan gogora dezadan zenbat kalte egiten duen
luzamendutan ibiltzeak, erremedioaren geroko uzteak.
Beraz Irutagoien, zatoz gizonetako bekatura
zaitudan desira, maita eta desordena.

Pedro de Axularren Gero liburu aszetikoaren oihartzunez
jositako poema da, baina desira-askatasuna aldarrikatzeko,
tradizio literario eta moral hori auzitan jartzen du, eta
berrizendatzen du, berregituratzen du. Desira homoerotikoa
eta gay imajinarioa gorpuzteko bide hori ere jorratu du Angel
Errok *Eta harkadian ni* (2002) eta *Gorputzeko humoreak* (2005)
bildumetan, ahots parodiko eta ironiko oso pertsonala
artikulatuz, tradizio klasikoa euskal imajinarioarekin
gurutzatzen duena.



“

*Tradizioaren imajinarioak ere sarritan
izan ditu parodiagai Itxaro Bordak,
ahots sozialen eta jende xumearen
ikuspegiak gorpuzteko*

”

Tradizioaren imajinarioak ere sarritan izan ditu parodiagai
Itxaro Bordak ere, ahots sozialen eta jende xumearen
ikuspegiak gorpuzteko (langileen zamak, desagertzear diren
hiztunak, krisi ekologikoa...), eta bildumaz bilduma desira
lesbikoa eta pentsamendu transfeminista gero eta esplizituago
eginez joan da, eta hain zuzen poema esplizituago horiek
gorputza dute erdigune. Pausa gaitezen Zure hatzaren ez
galtzeko (2014) poema honetan:

A ma belle inconnue...

Eskuen ederraz
Gorputzaren ñabarraz
Soaren zilarraz
Ahotsaren sakonaz
Guztiaz oroitzen naiz
Baina ez
Zure izenaz
(...)
Oin hatzen luzeraz
Bularren balantzaz
Irriaren ozenaz
Miharen hezeaz
Guztiaz oroitzen naiz
Baina ez
Zure izenaz.

Itxaro Bordaren ohiko tonu jostariaren bidetik, larru-
esperientzia baten ondoko memoriaz dihardu: gorputzaren
memoria gailentzen zaio, laztanen memoria gailentzen zaio, ez
beste edozein memoria ez-gorpuztu edo diskurtsibo (ezta
izendapenari dagokiona ere). Subjektu gorpuzturantzko
hurbiltzea ere nabari da joera antropologikoa edota
existentzial-filosofikoa garatu duten beste poeta batzuen
lanetan. Mari Luz Estebanen bigarren poema-bildumak,
Andrezaharraren manifestua (Pamiela, 2019) liburuak,
zahartzea bizitzeko, gorpuzteko eta birpentsatzeko moduez
jarduten du, begirada feminista ardatz izanda. Pausa gaitezen,
adibidez, Felipe Juaristiren *Piztutako etxea* (Erein, 2014) poema
honetako azken lerrootan:

(...)

Haragiaren erresuma bizi da gugan.
Bizitzeke eta janzteke uzten gaitu.
Haragi soil, jantzirik gaude; biluzik haragi gabe gara,
gorputz gorri eta sakona bizian.
Minik ezean heriotza bizi da, isil, geldi eta odolusturik.
Gorputzik gabe deus ez da haragia.

5

Hezurren erbestaldia,
haragiaren itsasoan.

Gorputz-sentsazioez haratago doa poema, gorputz-
existentziak ulertzeko ariketa da, gorputzaren ahalmenak eta
gorputzaren ezintasunak adierazten dira poeman.
Gorputzaren materialtasuna aipatzen da, baina areago doa,
materialtasun higatu eta zaurgarri ere badela iradokitzen
delako, denborak higatzen duelako, ezinbestean.

AFEKTUEN BIRAKETA-ARDATZAK

XXI. mendeko poesiak ere afektuen tolesduretan arakatu du,
gizakien arteko emozioen inguruko eremu horretara eramanez
poesia-gaia. Gorpuztasuna-ardatz izan duten poetika asko
ere afektuak izan dituzte biraketa-ardatz. Afektuaren inguruko
tematikak garatu izan dira euskal literaturaren historian zehar
(maitasun-gaien bidetik batez ere), baina gorpuztasuneranzko
joera berriagoa da. Nolanahi ere, XXI. mendean afektuaren
eremuaz aritzeko begiradak, erretorikak eta moldeak aldatu
dira. Testuinguru ezegonkor batean, errotze eta deserrotze
afektiboak helduleku garrantzitsu dira, eta aldi berean,
alderrai ibiltzearen sentsazioak ere afektu-dantza dakar,
noriaz dakar giza emozioetan. Heldulekuak arrakalatu
izanaren sentsazioez dihardute poema askok, eta maiz
agertzen dira hondamendiari, hondakinei, hondarrei eta
soberakinei lotutako irudi poetikoak, edo heldulekuen premia
aldarrikatzen dutenak.

Helduleku-gose hori irudikatzen du Kirmen Uriberen
Bitartean heldu eskutik (Susa, 2001) bildumaren izenburuak
berak. Bilduma honetan afektu-keinu txiki eta egunerokoak
egin ditu poesiagai, bizipen iragankor zein iraunkorren arteko
tentsioez jarduteko, helduleku afektiboak trinkotzeko desira
agertuz. Ahozko kulturaren eraginak sumatzen dira poemetan,
bai hotskidetasun eta egituraren aldetik, bai herri-kulturako
imaginario zenbait erabiltzen dituelako, betiere gaurkoturik,
betiere berrasmaturik. Pausa gaitezen poema honetan:

Bisita

Heroína larrua jotzea bezain gozoa zela
esaten zuen garai batean.

Medikuek esaten dute okerrera ez duela egin,
eguna joan eguna etorri, eta lasai hartzeko.
Hilabetea da berriro esnatu ez dela
azken ebakuntzaz geroztik.

Hala ere egunero egiten diogu bisita
Arreta Intentsiboko Unitateko seigarren kuxxara.
Aurreko oheko gaixoa negar batean aurkitu dugu gaur,
inor ez zaiola bisitara agertu diotso erizainari.

Hilabetea arrebaren hitzik entzun ez dugula.
Ez dut lehen bezala bizitza osoa aurretik ikusten,
esaten zigun, (...)
Bitartean heldu eskutik, eskatzen zigun,
ez dut promesarik nahi, ez dut damurik nahi,
maitasun keinu bat besterik ez.

Egoerarik mingarrienean ere, afektu-keinua bizirauteko
helduleku.





Afektuetan bestetasunek eta elkarrekikotasunek sorturiko korapiloez dihardu sarritan Castillo Suarez, bere ibilbide jorian etengabe itzuli baita gai hauetara: giza harremanetan sorturiko tentsioak, inkomunikazioak, zauriak eta erruak, guztiak ere besteekiko eta bestetasunekiko harremanak zein sentsazioak irudikatze aldera. Castillo Suarezen hizkera poetikoa zuzena izanik ere, lerro arteko anbiguotasunek, tolesdurek eta kontraesanek zentzuak eta galderak zabaltzen dituzte, sarritan ironiari ere lekua eginez. Lerro artekoetan irudikaturiko anbiguotasun horiek angelu-itsuak irudikatzen dituzte, pertsonen arteko inkomunikazioetan sorturiko une-eta gun-itsu horiek, hautemanezin direnak. Pausa gaitezen *Alaska* (Elkar, 2023) bildumako poema honetan:

Zauriak

Inork ez du ulertzen nire gogoratzeko modua.
Neguko uniformearekin noala urte osoan,
nireganako bideak faltsuak direla.
Nire sekretuak ezagutu baino lehenago,
ohetik kanporatzen ditudala neska gazteak,
landareen izenak ez dakizkitela leporatuz.
Inork ez du ulertzen nire gogoratzeko modua:
zauriak ilunpean ikustearen gisakoa da.

Zauriak agerrarazteko ezintasunaz dihardu, afektu-erak partekatzeko zailtasunaz dihardu, gogoratzeko modu propioez dihardu, besteenganako eta norberarenganako bidegurutze malkartsuak irudikatzen.

Afektu-minei segika, Izaskun Gracia Quintanaren poema-liburu gehienetan agerikoa da deserrotze existentzialaren sentimendua (*Eleak eta beleak*, 2004; *Artikoa/Ártica*, 2012; *Ohe hutsetan*, 2019): hau da, askotariko haustura afektiboek, bide urratuek eta bizi-hutsuneek eragindako samina.

Miren Agur Meabek, bestalde, *Bitsa eskuetan* (Susa, 2010) eta *Nola gorde errautsa kolkoan* (Susa, 2020) bildumetan (des)errotze afektiboetan arakatu du, izan maitaleekiko zein adiskideekiko harremanak aletuz, izan poeta maitteen ekarpenekiko sareak eraikiz. Itxaro Bordak ere poema askotan bidaide afektiboei zein literarioei egin die gorazarre, solaskidetzaren eta ahizpatasunaren ideia gorpuztuz, emakumeen arteko afektu-sareak irudikatuz. Interesgarria da *Zure hatzaren ez galtzeko* (Elkar, 2014) liburuan kideztaz eta harreman afektiboez aritzean, geruza berean kokatzen dituela lagun-minak, maitaleak zein idazleak (irakurketen bitartez ezagutu dituen subjektuak, irakurritako ahotsak ere afektu-eremu bihurtuz). Besteak beste, nabarmena da joera hori “*Maria Mercèren (b)egia*” poeman, katalanaren poemak itzultzea eremu intimo eta afektibo modura irudikatzen duena.

Mari Luz Estebanek poema-bilduma guztietan harreman-sareetan arakatu du, gutasunak zein nitasunak gorpuztean elkarrekiko harremanek, afektuek eta pentsamenduek zernolako eragina duten poetikoki adieraziz. Lehen poema-bilduman, *Amaren heriotzak libreago egin ninduen* (2013) liburuan, amaren genealogiak arakatzearekin batera, senidetasun- zein afektu-sareek sorturiko tentsio, desira, zauri zein grinak arakatu zituen.

GIZATASUNAREN ERROTAZIO-MUGIMENDUAK

Poesiaren funtzioetarikoa bat izan da helduleku existentzialak bilatzea, galdera existentzialak egitea, gizatasunaren ardatzetan arakatzeko. Joera existentzialista eta filosofikoak garai desegonkorretan indartu ohi dira, helduleku-goseak eraginda. Euskal poesian 1960ko hamarkadan biziberritu zuten joera hori hainbat poetak (Bitoriano Gandiaga, Juan Mari Lekuona, Xabier Lete, Jose Angel Irigarai...), gerren osteko triskantza-giroan eta agintekeria-giroan balizko heldulekuetan arakatzeko.

XXI. mendean zehar ekarpen poetiko ugari kokatu dira ikuspegi filosofikoaren koordinadetan, baina norabide horretan “*Poesia eta pentsamendua*” izeneko mugimenduak egin ditu ekarpen poetiko kolektiboak. Aritz Gorrotxategik, Felipe Juaristik, Juan Ramon Makusok eta Pello Otxotekok 2008. urtean ekimen hori jarri zuten abian, hainbat manifestu argitaratuz, eta hainbat poesia-errezitaldi eginez. Pentsamenduaren poesiaren ildoan kokaturik, poesia pentsamendutzat dute, gogoeta filosofikorako adierazpidetzat, giza existentzian arakatzeko zalantza-eragiletzat. Joera poetiko-filosofiko horietan honako gaiei heltzen die poesiak: denboraren iragatea, denboraren hautematea edo denbora kontzeptua auzi bihurtzea; maitasunaren nolakotasunaren inguruko auziak; heriotzari loturiko oinazeak; memoriaren eta iraganaren ulerkerari loturiko auzi existentzialak; giza (ez)jakintasunaren aukerak eta mugak; hitzaren (edota hitz poetikoaren) indarguneak eta ahulguneak...

Pausa gaitezen Juan Ramon Makusoren Bizitzeak hil egiten du (Beta, 2004) bildumako poema honetan:

Nora eza


Ustezko bideak, urak
eraikitzen ditu.
Hostoak, haizearen bideak
zeharkatzen ditu.
Maitasunaren beroak, suak
urtzen ditu.
Gizakiaren bidaia, lurak
estaltzen ditu.

Gizatasunaren mugez ari zaigu, giza begirada eta giza jarduna naturaren neurrietara ekartzeaz eta makurtzeaz mintzo zaigu.

Poeta askok jorratu dituzte kutsu existentzialak dituzten poetikak, esate baterako, Karlos Linazasorok *Denbora aleak* (Pamiela, 2005) bilduman, edo Jose Angel Irigaraik *Isiltasunaz hunatago* (Pamiela, 2020) bilduman. Eta horien artean, izan badira existentzialismorantz hurbiltzeko bidean joera jakin batzuk garatu dituztenak. Rikardo Arregi Diaz de Herediak bilduma guztietan poetika egituratu sendo bat garatu du, existentzialismoaren oihartzunez jositakoa (maitasuna, heriotza, giza harremanak...), baina bi zutabe hauek ardatz dituen: bata, tradizio poetikoarekiko elkarrietzeta etengabea, maiz (neo)klasizismoa zeharkatzen duena; bestea, jolaserako zein ironiarako printzak, joera existentzialari bestelako ukitu bat ematen diotenak.

Jon Gerediagak, halaber, poesia eta begirada antropologikoa uztartzen ditu, gai existentzial ugariren bilaketak edo arrakalatzeak irudikatuz poemetan: heriotza, maitasuna, absentsia, hustasuna, ziklikotasuna... Gai horiek jorratzeko mito klasikoaren erreferentziak ditu ardatz, baita sinbolo ezagunak ere, eta idaztinkeraren esperimentaziorako joera landu du. *Urtaroak eta zeinuak* (Pamiela, 2019) bilduman naturako osagaietan edo paisaietan arreta jartzen du beste behin, begirada idealizatutik urrun, eremu birrinduetan hazitako ñabardurak poesiagai bihurtzeko. Beste behin hondakinak eta hondamendiak poesiagai.

“
*Jon Gerediagak, halaber, poesia eta
begirada antropologikoa uztartzen ditu,
gai existentzial ugariren bilaketak edo
arrakalatzeak irudikatuz poemetan*
”



Beatriz Chivitek ere paisaiak ditu gogoeta existentzial, antropologiko eta filosofikorako gai. Baina mugimenduari loturiko paisaiak gailentzen dira Chiviteren poetikan: bidaiek, desplazamenduek presentzia handia hartzen dute bere poemetan, sarritan barne-bidaia bat gorpuzteko begirada poetikoen emaitza direnak. *Mugi/atu* (Pamiela, 2019) bilduman kartografia ibiltari poetiko bat osatu du, oraingoan arreta berezia jarritz migrazioetan, mugetan eta alderrai dabiltzan subjektuengan. Pausa gaitezen Beatriz Chiviteren *Zeozer gaizki doa* (Pamiela, 2022) bildumako poema honetan:

Ile solte kizkurak
banan-banan
erortzen dira
lauza horiko zorura

egunak aurrera doaz
eta Islandiako errepide batean
galdutako turistek bezala
ezagutzen dute elkar ileek

besarkatu egiten dira
hautsez estali
eta pixkanaka
gelan zehar bidaiatzen duten
bola mugikorrek sortzen dituzte
nire ohetik
zoriontsu begiratzen ditudalarik

no, nire erorketetatik
nire galeretatik
nire aldaketetatik
sortutako
ene seme-alabak

noraino helduko zarete
zuek guztiak?

Poeman, bada, alderrai-izaera hori gorputz-atalei edota gorputz-hondakinei ere egozten die, eta alderrai-aritzeari lotzen zaio galdera ere, baita hondakinen edo atal-erazuen helmugari ere.

GENEALOGIEN KORDAK

Noraez sentimenduek edo galera pertsonalek genealogiak jostera eraman ditu poeta zenbait, bizi-ibilbidearen bi korda jakin poetikoki uztartzera eraman ditu. Familia-genealogiatan arakatu dute poeta batzuek: Koldo Izagirrek *Rimmel* (Susa, 2006) bilduman alabarekiko harremana eta aita-ibilbidea hizpide ditu; Jon Benito *Bulkada* (Susa, 2010) bilduma bizi-ibilbidea ardatz hartuta autoerretratu poetiko bat eraikitzeke ariketa egiten du; Leire Bilbaok *Scanner* (Susa, 2011) bilduman familia-harremanak eta familia-sareak ditu hizpide, arrantzale herri baten testuinguruan, ni poetikoaren erradiografiaren oihartzunez josia. Pausa gaitzen bi poema hauetan:

Estimua

telefonoa ezkonberriz jantzia dute
erizainen eta gaueko laguntzaileen eskaintzeko
harrigarria dirudi baina badabil
ama-umeak ongi daudela jaio zarela alegia
aiton-amonei senideei zenbait laguni

—muttikoa ere ongi beraz?

eta kostar jatorra banintz
mielga etorri zarela esan behar nuke
«neska jaioten danean
mielga jaio dala esaten dakie Ondarroan»

—baina ez al zetorren muttikoa?

(...)
eta ez du ez dute konprenitzen
nola sortu zaren
ekografiek agintzen zutenaren batekoz bestera
zer edo zertarako balio dute
gure herri-jakintzaren bilduma ederrek

—bat ere ez baino gehiago da behintzat...

adio lehorra egin diot
amaren seme bazina bezala maiteko zaituenari
zergatik ordea zakarra naiz
guk ere sineskeriak irakatsiko dizkinagu
eta ez iraganekoak
erne ibili beharko dun gurekin
papardo polit horrek.

Koldo Izagirre, *Rimmel*.

Autoerretratu gaurkotua

A
ilea baso irekia da
kopeta desertua
betzuloak bi putzu ilun

begiak faro dira
belarriak txiki
sudurra gezi kamutsa
(...)
titiak sentiberak dira
sabela labirintoa
zakila misterio bat
(...)

B
nor 72454204-H
lo orduak 85896
01126742 osasun txartela

hortzak 32 dioptriak 1,5 + 2,5
oinaren neurria 42 prakena 29
giltzak 15 jaitsitako kantuak 798
(...)
1993-03-15 Laussaneko derrota
lan egun kotizatuak 1679
444 kilo zabor urtero
(...)

Jon Benito, *Bulkada*.





Lehen poemak alabaren jaiotze-eguna du hizpide, une hori ere zer-nola generizaturik dagoen irudikatzen duena, genero-estimua nola eraikitzen den aipatzen duena, eta aitatasunaren genero-posizioa susmoz begiratzeko gomendioa egiten dio alabari. Bigarren poemak autoerretratu kritiko-jostariaren itxura du, norberaren burua izendatzeko aurrez aurre jarrita gorpuztasunari loturiko ezaugarriak eta datu hutsetara eramandako ezaugarriak.

Genealogia horietariko batzuk pertsona maitatuen galerek sorturikoak dira; hortaz, kate genealogiko bat eraikitzean nortasun-ispiluek indar berezia hartzen dute, baita heriotzaren edo galeren inguruko gogoetek ere: esate baterako, Hedoi Etxartek *Sortaldekoak* (Susa, 2021) bilduman hildako uneak eta guneak ditu aipagai, geruza sozialetan eta paisaia sozialetan arreta berezia jarritz; eta Karmele Jaiok *Orain hilak ditugu* (Elkar, 2015) bilduman hildakoen genealogia bat osatzen du, pertsona-minen heriotza bizitzeak sorturiko deserrotzeaz aritzearekin batera. Poesia izan bada hildakoen presentzia biziartzeko gune. Pausa gaitezen pasarte hauetan:

Tanzaniako dortoka

Orain, astelehen guztiak dira
2020ko urriaren 26a.
Donibanetik bizikletan atera,
Arrasate okindegia itxita topatu,
beste okindegi batean moldeko ogia erosi,
Merced karrikara joan, sarreran ogia utzi,
txirrina jo eta balkoira ateratzen zara
Brasilgo izerditako urdinarekin.
Eta hitz egiten dugu azkenekoz
Lolak, zuk eta hirurok.
(...)

Hedoi Etxarte, *Sortaldekoak*.



Nire ametsetan agertu zara
hainbeste urteren ondoren.
Baldosa arteko belarren antzera
erne zara.
Ez nuen gogoratzen
neure burua zurekin.
Nire ahotsa
beste bat zen.
Eta orain
gogoan gorde nahi zaitut,
ni zurekin
zu nirekin,
eta han barruan dastatu,
poliki,
begiak ireki gabe, erdi lo oraindik.

Karmele Jaio, *Orain hilak ditugu*.

Batean, poemaren bitartez data bat berrizendatzen da, gertaera historiko eta afektibo dena, memoria errepikakor bilakatuz, ausentzia presentzia bihurtu nahian. Bestean, ametsaren bitartez eraikitzen du hildakoaren presentzia poetikoa.

Beste poetika batzuetan genealogia poetiko-literarioak eraikitze ariketa egin da. Mari Luz Estebanen *Haragizko erreformak* (Pamiela, 2023) bilduma kontzientzia ernaltze baten berri ematen da, “Teoria maketoa” izendatzen duena. Posizio poetiko horretan gurutzatzen dira zapalkuntza zenbaiten kontzientziak (kontzientzia feminista, herri-kontzientzia, hizkuntza-kontzientzia, klase-kontzientzia...), posizio poetiko-politiko berri bat sortzeko, subjektu maketarena, XXI. mendeko begirada batetik zeharkaturikoa.

“
*Paradigma-aldaketa
politikoaz jarduten duten edo
paradigma-aldaketa
diskurtsiboki eraiki nahi
duten bildumak ere argitaratu
dira XXI. mendean*
”

Genealogia hain hertsia irudikatzen ez badira ere, bilduma askotan irudikatzen dira kate genealogikoen zantzuak, iraganeko esperientzia edo harremanetan nortasun-ispiluak irudikatzeko asmoz. Itziar Ugartek *Gu gabe ere* (Susa, 2022) bildumako poemetan eguneroko eszenen eta iraganeko eszenen irudikatze poetiko oso zorrotza egiten du, ohiko egoera batean arrakala existentzialak eta sozialak sortuz. Pausa gaitzen *Gu gabe ere* bildumako poema honetan:

Itsaso aurrean ama

Oroitzen dut bainujantzia
eskuak gerrian, olatuei so

urte guztirako balio dit niri honek
eta nola ez nuen ezer ulertzen

bizkarrez eta oinak ur bitsetan

han hartzen zuen adorea
itzultzen dit gaur irudiak.

Oroimenetik amaren irudira joaz, iraganean ulertezin dena ulergarri egiten du orainak, alaba orainean ohartzen delako zer tamainatakoak ziren amaren kezak eta zamak, eta itsasoan adore hartzearen irudia lagungarri zaio erresistentzien eta arnasaldien genealogia berriak eraikitzeko.

Beste poesia-ahots batzuek, ordea, unibertso hautsi eta desegituratuak eraiki dituzte, genealogiak eraikitzeko zailtasunetan arakutzen dutenak, noraezean dagoen kolektibitate bat ikusarazteko, baita subjektu desjabetuak irudikatzeko ere. Ikuspegi horren erakusle dira Iñigo Astizen *Hondakinak ere* (2012) eta *Analfabetoa* (2019) bildumak.

POLITIKAREN FORMULA POETIKOAK

Paradigma-aldaketa politikoaz jarduten duten edo paradigma-aldaketa diskurtsiboki eraiki nahi duten bildumak ere argitaratu dira XXI. mendean, hiztegi politikotik edaten dutenak, testuinguru politikoa poesiagai bihurtzen dutenak, diskurtso politikoa poetikoki bihurtu nahi dutenak.

Jose Luis Otamendik, esaterako, ibilbidearen hasieran ahots intimo bat gorpuztu zuen, maitasun-minez ziharduena, baina ibilbideak aurrera egin ahala kolektiboaren minnez diharduen ahots politikoago baterantz egin duen bidea –*Lur bat zure minari* (Susa, 1995) bilduma izan zen norabide-aldaketa horretan giltzarri-. Eta azken poema bildumetan erretrorika politikoan arakutzen segitu du, hiztegi zein kode politikoen mugak ñabartzeko eta zartatzeko, baita erretrorika politiko hutsek eragindako ezinegon zein zaurgarritasunak irudikatzeko. Pausa gaitzen *Erlojuen mekanika* (Susa, 2007) bildumako poema honetan:

Kontraesanak eta alde eginak

entzun dut gauzak konpontzeko gaudela munduan
baina beste borroka modu batzuk badirela
bizi garen sasoirako egokiagoak
gizabidetsuagoak eta garaipen bati buruz egingarri
entzun dut bide demokratikoak direla zilegitasuna dutenak
zabal direla aurrerabideak hor
ez dela sasirik ez galbiderik

ikusi dut pertsonen borroka bideak oro itsutzen
ezinezko batailetan azken indarrak joatea datorrela hortik
munduko jendea Europa zabalean amore eman eta husten
ikusi dut herrien kartzela nola den eraiki
inork borrokarik egin ahal izan ez dezan ezertan
populu derrotatuen hiritar bentzutuen
Europa akitu bat

entzun dut beste borroka modu batzuk badirela
entzun dut bide demokratikoak direla eta ados nago
baina ikusten dudana ez dator bat entzuten dudanarekin
porrot egin dut
pentsatzen dudana esaten eta esaten dudana egiten
horregatik paratzen naiz sarri paper honen aurrean
eta ekiten diot berriro arduraz eta berriro ahalkez idazteari

Gizarte-testuinguru etsitu batean, hitz politiko asko zentzuz hustu direnean, gizarte-eraldaketarako gaitasunik baden zalantza egiten du, eta kontraesanak kontraesan, jakin gabe idazketa borroka-molde baliagarria den ere, idazteari ekiten dio. Beste poetika batzuetan imajinario politikoak eta poetikoak gurutzatu dira: hau da, erreferentzia poetiko erroetuekiko elkarriketan eraiki dira poemak, eta aldi berean, komunitatean erroeturiko joera zein diskurtso politiko erroetuak ere birkokatu eta desplazatu dituzte. Ildo horretan kokatzen dira Jon Benitoren *Aingurak erreketan* (2001), Beñat Sarasolaren *Kaxa huts* (2007) eta Alea (2009), eta Hedoi Etxarteren *Suzko lilia* (2008) eta *Sinplistik* (1981).





Beste poeta batzuek gatazka armatuari lotutako esperientziak birsortu dituzte: Hasier Larretzek *Azken bala / La última bala* (2008) lanean, ETAre indarkeriak eragindako zauri eta traumatizazio sakondu du; Ekhine Eizagirrek *Alde erantzira nabil kartzelan idatzi zuen* (2016), espetxearen hersturatik ihes egiteko bidetzat eta heldulekutzat hartuta ahizpatasun feminista eta desira homoerotikoa. Martin Bidaurrek *Itzuleran* (2017) bilduman klandestinitatean bizitako haurtzaro batek sorturiko pitzadurez eta gurasoak atxilotu ondorengo babesgabetasun-sentimenduez dihardu.

BILDURA ETA EBAKIDURA POETIKOAK

Ekarpen poetiko batzuek diziplinarteko begirada jorratu dute, bai poemetan eginiko erreferentzia artistiko askotarikoengatik, bai poesia beste adierazpide batzuekin gurutzatu delako. Beste adierazpide artistikoekin sorturiko elkarrizketa bizian garatu da Harkaitz Canoren ibilbide poetikoa. *Kea behelainopean bezala* (Susa, 1996) lehen poema-bilduman jada nabariak dira Canoren literaturgintzan maiz garatu diren osagaiak: erreferente literarioekin edo artistikoekin sorturiko elkarrizketak, gogoeta estetikoak, kutsu surrealista, irudi iradokitzaileak...

Ekarpen poetiko batzuek diziplinarteko begirada jorratu dute, bai poemetan eginiko erreferentzia artistiko askotarikoengatik, bai poesia beste adierazpide batzuekin gurutzatu delako

Metapoetikaren bidetik ere jo izan du Harkaitz Canok sarritan, artearen mugez jarduteko, artearen esanahiez jarduteko, artearen neurriez jarduteko. Pausa gaitezen *Pozaren erdia* (2022) soneto-bildumaren poema honetan:

Hamalaukoa

Rolls Royce auto bat da sonettoa, alajaina.
Errepidean koskarik gabe azkar doa,
diseinu perfektuena, barru eroso.
Sano behartua liteke errima baina

garaiz aldatzen da, ez aspertzeko adina.
Kanpotik ez maite arren molde klasikoak,
poeta zaharren laztan antigoalekoa
eta maisu-maistren isuria eta zaina

sentituko dituzu han eseri orduko.
Ni noa gidari, ala neurtitza dut zaldi?
Tradizio ufadak fin dizu lagunduko.

Esku-eskueran dizkizu fortunatuko
biharrak atzo ereindako zazpi esaldi,
zazpi samuraien eran, ukaldiz ukaldi.

Poemaren forma du hizpide, jolas eginez formaren, zentzuaren eta sorkuntza-prozesuaren arteko korapiloak.

Erreferentzia artistikoz harago, adierazpide artistikoz blaiturik dago Aintzane Galardiren poetika ere. *Hegodun poemak* (Denonartean, 2018) bilduman, beste liburu batzuetan bezala, poesia-molde eta ahots poetiko oso berezia gorpuztu du, askotan collagearen estetika gogora dakarrena, askotariko aipuz josirikoa (klasikoak, garaikideak, ekialdeko kultura...), baita Aintzane Galardik berak eginiko ilustrazioz ere.

Elena Olaveren poemetan ere etengabeak dira arte-erreferentziekin, arte-sinboloekin eta arte-piezekin eraikitako solasaldiak. *Zeldak* (Balea Zuria, 2019) bilduman Louise Bourgeois-en lana du abiapuntu, egitura bera sortzeko, baita poemen bestelako oihartzunetan ere. Gehienetan existentziaren inguruko eszenak, irudiak zein galderak irudikatzen ditu bilduman, arte-imaginario batzuekin sorturiko elkarrizketen bitartez.

Bestelako tonu batean bada ere, Eric Dicharryk ere literaturaren eta artearen inguruko galderak eta gogoetak pausatzen ditu poemetan, hausnarketa estetiko adarkatu bat bihurtuz sarri bildumen ardatz nagusi. *Duchampen inguma* (Pamiela, 2018) poesia-liburuan izenburutik bertatik iragartzen du oihartzun artistiko hori.

Haur poesiaren ekarpen ugaritan ere adierazpide-aniztasuneranzko joera garatu da. Leire Bilbaoren *Xomorropoemak eta beste piztia batzuk* (2017) eta *Barruko hotsak* (2022) bildumetan, esaterako, hoskidetasunez, osagai bisualez eta jolasez beteriko poemak jaso dira.

II-REN ARRASTO POETIKOAK

Muga argirik gabeko habitat bat kartografiatzeko ariketa egin dut, hurbilegitik egin ere, nahikoa perspektibarik gabe. Habitat bizi horren estratu eta geruza gutxi batzuk baino ez ditut aipatu (hesiaz beste aldean utzi ditut poeta, poema eta molde asko). II-ren oihartzuna dut segika, bi hamartar akaso ikusgarri egin ditudalakoa, baina hamartar infinitu dituen habitat bat kartografiatzeko ezintasunak hartuta. Perimetroez beste egiten dute ekarpen poetikoez, neure irakurketez beste egiten dute ekarpen poetikoez, baina sailkatze-ariketa orok dakar muga eta kimatzea.

Perimetroak hesitzear nagoen honetan, pausa gaitezen Julen Apellaren *Postal bat desertuan* (2023) bildumako poema honetan:

Galderak

eta bihar mundua itsusi eta habitaezin
esnatuko balitz,
nora arte zeundeke prest
edertasuna, egia, justizia praktikan jartzeko?
Orduan postal bat hautsiko litzateke goitik behera;
lokarriek, botoiek, arnasa estutuko lizukete,
eta ez litzateke izango tarterik
zure burua berresteko infinitu gisa:
ura amaitzen hasiko balitz,
zure erraietako zein ortzimugari egingo zenioke uko?
Zein ordenatan egingo lukete salto
zure baitakoek itsasontzitik behera?
Edo bestela esanda: zein karta
gordeko zenuke patrikan
zure bizitza halabeharrari erabat ez eskaintzeko?

Perimetroak perimetro, hesiak hesi, habitaezina habitagarri egiteko ahaleginez josia dago XXI. mendeko euskal poesia. Segi beza habitat bizigarriagoen peskizan.

Iratxe Retolaza (Donostia, Gipuzkoa, 1977) literatura-kritikaria eta literatura-ikertzailea da. Euskaltzain urgazlea, UEUko Literatura sailburua izan da urteetan. Euskal Herriko Unibertsitateko irakaslea ere izan da: 2006tik 2021era bitarte euskal kulturaren, sormenaren eta komunikazio-gaitasunen inguruko irakasle aritu zen.






gorputzaren eleak

ITXARO BORDA

MIREIA CALAFELLEN poesiagintza, urdailak inarosten dituen ukabilkadaka garatzen da. Gorputza aipatzen du generoaren iruditegiez harago, egunerokotasun larriarekin harreman gatazkatsuetan sufritzen eta inguruan gertatzen denaz beti adi. Mito klasikoak gaurko izu ekologikoekin uztartzen ditu, munduaren parte honetan bizitzeak ematen dion –dipun– alegorien pribilegioez baliatuz.

Bartzelonan sortua 1980 urtean. Poeta gisa ezaguna da Mireia Calafell; gehienbat, kultur ekintzetan eta aholkularitzan ari da lanean eta Maria Mercé Marçal fundazioaren kolaboratzaileen taldean dago. 2018az geroztik, Barcelona Poesia festibalaren kudeaketan ere badabil. Hainbat sari baditu eskuratuak, horietan 2015ean Lletra d'Or izenekoa.

2006an plazaratu zuen bere lehen poema bilduma *Poétiques del cos* (Gorputzaren poetika) tituluarekin eta hiru urte geroago *Costures* (Josturak). Euskaratu eta aldizkari honetan agertzen ditugun poemak 2013ko *Tantes Mudes* (Mila Muda) eta 2020ko *Nosatres, qui* (Gu, nor) liburuetatik hartuak dira.



“*Mireia Calafellek mito klasikoak gaurko izu ekologikoekin uztartzen ditu, munduaren parte honetan bizitzeak ematen dion –dipun– alegorien pribilegioez baliatuz*”



p o e m a k

MIREIA CALAFELL

POÈTICA


Menjar com qui no menja el nom:
no la maduixa quasi impúdica
damunt del blanc de la ceràmica,
sinó l'ombra muda de l'hivern
que en el silenci acull l'esclat
per no ser allà esperant-ne el fruit.

Menjar el que no diu cap paraula
i així, amb la boca plena, escriure.

LITERATURA

No t'ha besat i ha marxat amb pressa,
i ha arribat a casa, i ha encès l'ordinador,
i ha escrit no t'he besat, no t'he besat la boca
i ara què en faig jo d'aquest voler-te als llavis.

En fa literatura. Només literatura.



POETIKA

Jan, izena jaten ez duenaren antzera :
zeraikaren zuriaren gaineko
arraga kasik inpudikoa ez,
baizik eta isiltasunean printza ongi
hartzen duen neguaren itzal mutua
fruituan espero denaz harago ez izateagatik.

Jan, hitz bakarrak erraten ez duena,
eta horrela, ahoa beterik, idatzi.

LITERATURA

Ez dizu musurik eman eta presaka alde egin du,
eta etxera iristean, ordenagailua piztu eta idatzi du:
ez dizut musurik eman, ahoa ez dizut musukatu,
zer egin behar dut orain zure ezpain desio honekin.

Literatura egiten da horrekin. Literatura baino ez.

COMIAT

Dir-te adeu era això:
veure com cremen boscos
i ser jo tots els arbres.
També la pluja ferma
que ha començat a caure.

AGURRA

Hauxe zen zuri agur erratea :
oihanak nola erretzen diren
ikustea
eta ni zuhaitz guziak izatea.
Bai eta erortzen hasi zen
euri gogorra.

DIACRÍTIC

dona dóna dona dóna
dona dóna dona dóna
dona dóna dona dóna
dona dóna dona dóna
dona dóna dona dóna

que violent és un accent
quan no fa prou diferència

DIACRÍTIC

eman eme eman eme
eman eme eman eme
eman eme eman eme
eman eme eman eme
eman eme eman eme

zein gogorra den bokala,
nahikoa
diferentziarik egiten ez
duenean

LA FI DEL MÓN

No va arribar amb un llamp obrint el cel de matinada,
no s'enfosquí de cop la Terra ni el gel ho cobrí tot;
no consta enlloc l'existència ineludible d'un tornado
ni es va sentir cap erupció -lava escolant-se per l'esòfag;
no va esquerdar-se cap vorera, abismes de l'insomni,
ni s'esfondrà cap edifici, ni es van partir els ponts.

Va arribar, senzillament, amb un càncer de pulmó.

MUNDUAREN AKABERA

Ez da etorri goizeko zerua tximista batekin zabalduz,
ez da lurra bat batean ilundu, ez du izotzak guztia estali;
ez kontatu uholde baten ezinbesteko heltzearekin,
ez da erupzio bakar bat entzun -laba zintzurrean behera-
ez da altzairu bakar bat urratu, insomnioaren leizeak,
ez da eraikin bakar bat lehertu, ez eta zubirik hautsi.

Etorri da, astiro, biriketako minbizi batekin.



SIMULACRE

Tu, que pots recórrer
el món dins la pantalla,
dir amb exactitud
quin és el to del blau
de la Praia do Sono, a Paraty,
si ja ha arribat l'estiu a la Camarga,
com mou lleugerament les oliveres
el vent a Astypalea,
penses sovint en l'àvia,
que tot i néixer a una illa
mai no es va banyar al mar.

Mira, voldries dir-li ara,
hem escurçat distàncies
però seguim igual:
tenim a tocar l'aigua
i no ens sabem mullar.

SIMULAKROA

Zuk, pantaila bidez
mundua korritzen ahal duzuna,
Paratyn, Praia do Sonoko
Urdinaren doinua zein den
zehazki erran dezakezuna,
Camargara uda etorria denez,
Astypaleako haizeak olibondoak
zein arinki mugiarazten dituen,
amonari pentsatzen duzu askotan,
uharte batean sortu arren ez baitzen
nehoiz itsasora bainatzera joan.

Begira, erran nahi zenioke orain,
distantziak laburtu ditugu
baina berdin segitzen dugu:
ura hurbil-hurbila dugu
baina bustitzen ez dakigu.



Itzulpenak: Itxaro Borda

SORORITAT ZOMBI

De sobte, un crit agut va despertar-les
en una nit atàvica que reverbera encara.
Des de llavors, avancen amb pas ferm
a la recerca infame del culpable
-constants vitals normals, braços enlaire.

Si ara són aquí, sota del teu portal,
fas bé de tenir por: han vingut a buscar-te.
T'esperen al carrer per demostrar
que mai no és cert del tot que un crit s'apagui
ni que totes les morts -les vostres morts-
ens matin.

AHIZPATASUN ZONBIA

Bat-batean, oiuhu zorrotz batek esnatu zituen,
oraindik distiratzten duen gau atabiko batez.
Orduz geroztik, urrats sendoz aitzinatzen dira
errudunaren bilaketa lotsagarrian
-bizi-konstante normalak, besoak gora.

Orain hemen badira, zure ate azpian,
ongi liteke beldur bazina: zure bila etorri dira.
Karrikan daude zure aiduru, frogatzeko
ez dela beti arras segur oiuhu bat hiltzen dela
ez eta hil guztiek -zuen hilek-
hil gaituztela.



poesía sin concesiones

RODOLFO HÄSLER

AUTORA de novelas premiadas en las que el tratamiento poético del lenguaje es una de sus principales características, Antònia Vicens nació en el pueblo de Santanyí, isla de Mallorca, en 1941, en plena y durísima posguerra española, mientras Europa se hacía añicos sumida en la Segunda Guerra Mundial. La autora publica su primer libro de poemas, *Lovely*, en 2009, pero antes había publicado novelas y cuentos, y desde ese momento vendrán otros cuatro libros que la convierten en una de las voces poéticas, o en la voz poética más importante de la literatura en lengua catalana. Esa curiosa circunstancia de comenzar a escribir poesía y publicar a una edad madura es quizá la razón de su especificidad y particularidad.

En la poesía, Vicens va directa al grano, conocedora del lenguaje y sus secretos, consciente de que la poesía es pura decantación, manejando el recurso como nadie. Un buen día, las palabras comienzan a caer en su mente como una fina lluvia deslumbrante, cargada de imágenes y sentidos, recibiendo la poeta el don de la palabra exacta, desprovista de adornos, la palabra justa y certera. Lo cuenta ella misma en entrevistas y en lecturas a las que he tenido la suerte de asistir en Barcelona. Las palabras se le ofrecieron, y eso sí, después ella tuvo la destreza de saberlas acoger. Y vemos así estos cuatro versos de su primer libro, *Lovely*, al decir:

*A la memoria le han salido raíces. Los recuerdos
minúsculos como monedas de un céntimo. Hace falta
tener los bolsillos llenos para poder ir al horno
a comprar pan.*

Antònia Vicens creció en una casa sin libros, una casa con escaseces, hija de marinero y de ama de casa, pero como sucede tantas veces con los seres tocados por ese no se sabe qué que los hace únicos, trató con ahínco de superar esa dificultad de partida, primero con el consejo del farmacéutico del lugar, leyendo algunos libros de formación, para luego ir marcando su propio camino, con la comprensión de una madre que la apoyaba, que deseaba que se formase, como dice en alguno en unos versos memorables y lúcidos donde queda evidente que el esfuerzo de todo camino es siempre personal, que la superación depende de la voluntad.

Y como no podía ser de otra manera, la poesía que los lectores van a encontrar al abrir sus libros es la obra de una vida vivida bajo determinadas circunstancias políticas, sociales y culturales. Vemos cómo la palabra poética acompaña todas estas vivencias determinantes tal que si se tratase de un testigo de primer orden, y llega así a fusionarse con los acontecimientos. Encontramos palabras que vibran sobre el papel, tanto en el proceso de creación de la poeta como en la página abierta ya en manos de quien lee, de la misma forma persistente que un maná fructífero que alimentara a la vez a autora y a lectores en momentos de introspección, de búsqueda de respuestas. Porque así ha sido recibida su poesía, como un indispensable alimento del espíritu, una defensa, un espacio interior siempre a salvo, y así se percibe nada más entrar en la lectura: nos vemos atrapados en un tejido denso, casi inmovilizador, de sensaciones restallantes, latigazos que destruyen la primera definición posible del lenguaje; es decir, destroza la conductividad de la lógica.

“

Sobre el hecho de escribir poesía, Antònia Vicens ha dicho en varias ocasiones que siente como si la vida le fuera cayendo encima a trozos y ella se viera obligada a recogerla

”

Imposible, pues, avanzar por caminos fáciles, obligando a construir una nueva percepción para volver a encontrarse, descubrir qué es aquello aterrador que está sucediendo. En eso, la poesía de Antònia Vicens no hace concesiones, entra en la mente hasta lastimar la conciencia y nos coloca en situación de esfuerzo continuado para intuir la unidad y podernos reconstruir.

Aparece así una fuerte ironía que se entrelaza con la experiencia y se acaba convirtiendo, en casi todos los poemas, en materia de reflexión, lo que hace brotar siempre el desconcierto, la duda, la práctica deconstrucción de lo que la poeta va destacando. Algo repentino se instala en el cerebro, como una sombra, las dudas llegan y de repente todo se revierte, es de otra manera, al inicio no se sabe qué va a surgir de ese nuevo nacimiento, cómo será la presencia, pero a medida que avanzamos y se alcanza cierta calma, nos vamos percatando de todo aquello que ha quedado en pie tras el estallido de la tormenta.

Hay una clara utilización de recursos que procuran acercarnos a la sorpresa, el lector descubre así que las palabras pueden llegarnos como una lluvia fina, es cierto, como a ella le gusta contar, como hojas enredadas en el viento, como un viento inesperado que todo lo arrastra, y aunque la vivencia cotidiana sea en muchos casos el origen, hay también que saber atrapar, saber recibir un campo de sentidos nuevos, como si ahora lo que de veras contase fuese aquello que no vimos, lo que permaneció escondido, esperando, en el envés de la hoja. Todo lo dicho es la demostración de que la escritura es siempre un ejercicio de interiorización.

Poesía como un medio para comunicarse con otros planos de la existencia, los que no son evidentes ni palpables, y que por ello son denostados en una sociedad que solo destaca lo que puede tener una explicación lógica. Y escuchando aquí y allá descubre como las palabras acumulan un gran poder, una fuerza inmensa, que éstas son capaces de crear mundos: solo es necesario estar atentos y esperar, un poco nada más, a veces basta un instante para que cuaje la consagración.

Preguntarse y preguntar, la actitud primera para tratar de descubrir aquello que vibra detrás de la evidencia, y vemos en otro poema:

*El viento arrastra aquel olor
ácido tan
propio de los sudarios.*

Versos que nos dejan el alma en suspensión, y vemos que hay pérdida, continuas desapariciones, grandes apariciones, deslumbramientos, humor, pasión, dudas, muchos dardos y alguna certeza, es decir, todo lo que nos acompaña a lo largo de la vida, por lo que la lectura se convierte en profunda comprensión de lo que es esencial en la existencia.

La poesía, pasada en todo momento por la memoria, crea escenas de fuerte lirismo que, sin embargo, dejan entrever una mueca incómoda y algo de dolor, cierto desencanto. Estamos ante una propuesta que es a veces un juego fascinante, una manera de mirar al mundo y de mirar cómo el mundo se acerca y se comunica con nosotros.

Hay también mucha economía de medios, lo que le confiere a los poemas una mayor ambigüedad, una mayor polisemia. Aparecen recuerdos infantiles, o sueños extraños, y esas carencias que suelen dejar en la conciencia un poso de melancolía difícil de mitigar. Hay rabia, hay aspereza, hay miedo, hay denuncia, hay un deseo de gritar a los cuatro vientos, un grito profundo, un aullido incluso y la incompreensión de un entorno siempre a cuestionar.

Se trata de una escritura que es una permanente y maravillosa invitación a la lectura.



Sobre el hecho de escribir poesía, Antònia Vicens ha dicho en varias ocasiones que siente como si la vida le fuera cayendo encima a trozos y ella se viera obligada a recogerla, a hacer algo con esos fragmentos que van presentándose exigiendo una solución. Experiencias vitales, como la sufrida tras una operación en los ojos, la llevan a escribir *Fred al ulls* (Frío en los ojos) en 2015, escrito después de *Sota el paraigua el crit* (Bajo el paraguas el grito) de 2013.

Tots els cavalls (Todos los caballos, 2017) la consagra ya como una de las poetisas más sorprendentes y únicas, alejada de modas y de concesiones estéticas de ningún tipo, que la hacen muy querida y leída entre el público. Con este libro obtuvo el Premio Nacional de Poesía en 2018.

Pare què fem amb la mare morta (Padre qué hacemos con la madre muerta), su más reciente publicación, de 2020, es donde indaga en la experiencia de la pérdida haciendo un trabajo de interiorización que bordea la crueldad y toca fibras sensibles que todos hemos tenido dañadas alguna vez y que, al elevarlas, acaban brillando como una lámpara en medio de la desesperación. La locura que convocan estos versos no es otra cosa que un mundo intenso lleno de caballos de colores que sobrevuelan la ciudad dejando destrucción, dolor, soledad, y donde hay un mar que trae cadáveres a la orilla, la enajenación repentina como búsqueda de otra vía, de una salida, de una escapatoria, de otra forma de comunicación, pues como sabemos, a veces la creatividad está muy cerca de la locura (qué es lo normal, cuando se deja de ser normal). La mente es inconmensurable y esto lo sabe la poeta, como vemos en estos dos versos del libro citado.

*Gemidos del agua prisionera en balsas de cal
hacen estremecer
el bosque Mujeres y sus recién nacidos.*

Antònia Vicens es una poeta que ha ido escribiendo como ha ido recibiendo las palabras. Ordenando el mandato, un poema ha llevado a otro, formando un conjunto de voces y personajes que cruzan la escritura, personajes que están presentes hasta el final, herencia de su labor de narradora. La cadencia, el ritmo de cada palabra se va imponiendo y la poeta se siente el brazo ejecutor de una tarea que descubre a medida que se va conformando. Su poesía es una poesía que nos arrastra y nos invita a no cerrar los ojos, a permanecer atentos ante el misterio de la vida, ante aquello que no tiene fácil explicación.

Rodolfo Häsler Santiago (Kuban) jaio zen 1958an, baina Bartzelonan bizi da hamar urte zituenetik. Letra Gradua lortu zuen Lausanak Unibertsitatean (Suitza) eta hamaika poema bilduma argitaratu ditu. Azken hirurak dira *Lengua de lobo* (Hiperión, 2019, Claudio Rodríguez saria), *Cuaderno de Beirut* (Polibea, 2020) eta *Hospital de cigüeñas* (Libros de la hospitalidad, 2022). Itzultzailea da. Besteak beste *Tots els cavalls* eta *Pare què fem amb la mare morta* itzuli ditu katalanetik gaztelaniara.

p o e m a k

ANTÒNIA VICENS

dÀNIMES

L'aigua que bull dins els teus ulls.
L'aigua que vessa de les teves mans.

L'aigüat que cau damunt el taüt de ta mare
enmig del jardí
davant la mirada impassible dels ocells.

*Per què dubtes de la Mà que alça les ones? Vares
oferir la teva llum del matí per escurçar la seva nit.*

Encara no sabia que sense una platja a la vista
no podria aguantar molt de temps a l'aigua fent el mort.

Encara no sabia que la fosca crema els ulls.

dARIMAK


Zure begien barrean dirakien ura.
Zure eskuetatik gainez dagien ura.

Zure amaren hilkutxa gainean ari duen euri-jasa
lorategiaren erdian
txorien begirada ezaxolaren aurrean

*Zergatik zaude zalantzan uhinak altxatzen dituen Eskuaz? Zure
goizeko argia eskaini zenuen haren gaua laburtzeko.*

Artean ez nekien begien bistan hondartzarik izan gabe
ez nuela luzaroan iraungo uretan hilarena egiten.

Artean ez nekien ilunpeak begiak erretzen dituela.



Perquè has arribat a un saltant de la teva vida que quan
algú et demana de què passes gust contestes
sóc feliç el dia de la setmana que canvio
els llençols i el llit fa olor
d'infància

Zeren zure bizitzako une honetara iritsita
inork galdetzen badizu zerekin gozatzen duzun, erantzuten baituzu
zoriontsua naiz maindireak aldatzen ditudan
asteko egunean eta oheak
hautzaroko lurrina duela

LA MEVA PRIMERA LLIBRERIA

Era de caoba vermella
amb portes vidrieres
de vidres fumats
i rivets de laca
blancs.

Un metre d'alçada
per un metre cinquanta d'amplària.
Tres prestatges de vint.

Vàrem rompre la guardiola de terrissa
i tot un capvespre de gener
per anar a comprar-la.

Aviat a casa varen anar arribant Albert Camus. William
Faulkner. Virginia Woolf. Víctor Català. Carson
McCullers. I James Joyce amb el seu *Retrat
d'un artista adolescent* que
em va crear una úlcera a
la ploma.

A poc a poc deixava
de ser moble
i passava a Santuari.
La llibreria.

Les pregàries de la nit
les feia davant el cor obert de la fusta
i no davant el Cordejesús amb els ulls girats
de damunt la capçalera del llit.

A la mare
que no havia obert mai un llibre
també l'amarava de devoció. La llibreria.

Llibres a una casa de pobres!

Religiosament es cuidava que la pols
no es fiqués per les escletxes i envaís el paper.
Que els polls del llibres
no espipellessin les lletres.

En canvi el pare calcigava estufera
quan hi passava per davant.

Satisfet d'haver pogut comprar
la mar a la seva filla.

NIRE LEHENBIZIKO LIBURUTEGIA

Gorri kaoba-kolorea zen
eta kristal iluneko atea zituen
lakazko ertz
zuriekin.

Metro bat gora
metro eta erdi zabal.
Hogeiko hiru apal.

Lurrezko eltzetsua hautsi genuen
eta urtarrileko arrats oso bat eman
hura eroatera joateko.

Laster hasi ziren etxera iristen Albert Camus. William
Faulkner. Virginia Woolf. Victor Català. Carson
McCullers. Eta James Joyce eta bere *Artista
nerabe baten erretratua*
ultzera bat eragin zidana
luman.

Pixkanaka joan zen
altzari izateari uzten
eta Santutegi bilakatzen.
Liburutegia.

Gaueko errezoak
zuraren bihotz irekiaren aurrean egiten nituen
ez oheburu gainean begi zurituekin zegoen
Jesusen Bihotzaren aurrean.

Ama ere
sekula libururik ireki gabea
deboziaz blaitzen zuen. Liburutegiak.

Liburuak pobreen etxe batean!

Zintzo zaintzen zuen hautsa
sar ez zedin zirrituetatik eta papera inbaditu ez zezan.
Liburutako sitsak
letrak jan ez zitzan.

Aita berriz harrotasunez ibiltzen zen
aurretik pasatzean.

Pozik aukera izan zuelako
alabari itsasoa erosteko.

llavors et revé la immensitat damunt la mar
un rengle de gavines i la cua d'una estrella
fugaç al cel un vol de barques i
el rastre d'un vaixell
et concentres cercant visions
sobrenaturals però
de seguida ho deixes córrer

si poves suren cadàvers.

orduan berriz datorkizu immensitatea itsas gainean
kaio lerro bat eta izar uxo baten
adatsa zeruan txalupa aldra bat eta
ontzi baten ubera
kontzentratzen zara ikuspen
sobrenaturalen bila baina
berehala etsi egiten duzu

ura ateraz gero hilotzak azaleratzen dira.



S'acosta la remor d'una multitud fora que siguin
cavalls corrent per les teulades
sabates frissoses de tocar l'eternitat
nens morts amb ocells als ulls
que les marees escampen arreu
dels meus somnis.

Hurbiltzen doa jendetza baten harrabotsa non ez diren
zaldiak lasterka teilatueta
oinetakoak eternitatea ukitzeko irrikan
ume hilak txoriak begietan
mareek barreiatuak nonahi
nire ametsetan.

Potser podríem posar la mare dreta
a un racó
de la casa Fanal
o llum de peu
ens il·luminaria les nits
més negres Tret
que prefereixis
tenir-la
plantada al jardí I veure
com
s'inclina
cap a tu.

Ama jar genezake zutik
bazter batean
etxean Farola
edo zutikako lanpara
argituko lizkiguke gau
beltzenak Non ez duzun
nahiago
lorategian landaturik izatea Eta ikustea
nola
makurtzen den
zuregana.

Zaldiak apatxak odoldurik ultzerak
larruan bitsa ahoan sartzen dira
etxeetan emakumeak bortxatzen bitartean
ni ukuilu batean gorderik
bazkaz elikatzen naiz
sabela puzturik erditzeko
zorian astakume batez.

Els cavalls peüngles sangonoses úlceres
a la pell bromera a la boca es fiquen
a les cases violen les dones mentrestant
jo reclosa en una pallissa
m'aliment de farratge
la panxa inflada a punt de donar
a llum un pollí.

Itzulpenak: Monika Etxebarria

ARGITASUNA DUEN ZERBAIT

NATALIA SUÁREZ ORTIZ DE ZÁRATE


PINTURAREKIKO dedikazioa asko polarizatzen zaidan zerbait da: batzuetan, erabat estrukturala dela sentitzen dut, nire bizitzan dena horren bidez sostengatuko balitz bezala, beste batzuetan guztiz galtzen du zentzua, eta gauza barregarri eta ia lotsagarri bat iruditzen zait. Bitxia bada ere, marra oso fin batek bereizten ditu bi mutur horiek.

Estudioan, margozterakoan, egin behar ez denari buruzko penntsamenduak sortzen zaizkit etengabe. Pinturan “txarto” dagoenari buruzko ideia horien guztien aurrean desobeditzen saiatzen naiz. Egin nahi dudanaren, egin dezakedanaren eta azkenean gertatzen denaren artean tentsio bat dago, hainbat desfase eragiten dituen. Kasurik txarreanean, akatsak iruditzen zaizkidanak zuzentzen ditut, geruza gehiago gehituz edo dena zirriborratuz, ez disimulatzen saiatzen naiz, pinturak berak nola eginga dagoen erakutsi dezan.

Azkenaldian, buruak eta gorputzak margotzen ari naiz, jarrera desberdinetan: hori irudikatzea eta marrazten saiatzea arreta handia eskatzen duen ariketa da. Harrigarria ere bai, pertsonaia bakoitzak izaera bat lortzen baitu, batzuk atsegin dituzu, beste batzuk ez hainbeste... Hori modu sotilagoan estrapolatzen da forma eta kolore guztietara, pintura osatzen duten elementu guztietara.

Gehiegi ulertzen ez dudan ibilbide horretan, betiere esperimental eta intuitiboa, bat-batean zerbait egituratu eta definitu egiten da, eta hortik argitasuna duen zerbait ateratzen da; pintura bat.

Natalia Suárez Ortiz de Zárate (Gasteiz, 1994), Bilbon bizi eta lan egiten duen artista da. Banako lana pintura eta marrazkian oinarrituta dago, baina arte eszenikoen mundua ere arakatu ohi du Tripak konpainiarekin. 2021etik Kampai espazioa kudeatzen du, beste artista batzuekin batera. Espazio anitzetan erakutsi izan du bere lana, bai bakarka, bai taldeka. Besteak beste, ondoko erakusketak dira aipagarriak: *Dragón de cuatro cabezas*, Herrero de Tejada Galerian (Madril, 2023) *JADE*, BilbaoArte Fundazioan (2022), *DIENTE DE LECHE* Montehermoso kulturgunean (Gasteiz, 2022), edota *Hamahiru*, Tabakaleran (Donostia, 2022). Hainbat egonaldi artistikotan ere parte hartu du, estatukoetan zein nazioartekoetan: Joshibi University of Arts, 2022 (Tokio), S'ALA Spazio per Artisti, 2020 (Sardinia), AIR Sandnes, 2019 (Norvegia), edo Tabakalera, 2018 (Donostia), adibidez.





LERROAK

Batzuetan laranja da euria
Lea ibaia lehortu da
Oraindik badaude pinpilinpauza
txuriak ibaiertzean
Batzuetan urrunetik deitzen
nauzu

Tomateak loratu dira Helsinkin
Zeozer gaizki doa.

Beatriz Chivite

Nork eskatu dio haizeari, / nork itsasoari, izateko? / Jasoko du norbaitek / gure errautsa. **Aritz Gorrotxategi**

Munduratz azeri gisa agertu
izana
ez da kasualitate hutsa.
Neure burua izendatzea
galarazten didazun izen
maitea: biba!.

Libe Goitia

Udaberri bat asmatu dut
Leturiarenaren antzekoa.
Hezurrik gabe,
gizakia naiz
hori antzeztu dezakedan
neurrian.

Jokin Erkoreka

Gereziondoari bezala
begiratzen diogu
esperantza merke
horri
loratuko ote da
oraingoan.

Martin Bidaur

Arrisku orotik salbu zirudien gaur denak / baina ikusi egin dizut / apar uherra begietan. **Itziar Ugarte**

Tiro hotsa zuten gure maitasun soinuek,
umetokira apuntatu
ama ernaldu
eta emakumea hil zenuten.

Nerea Arrien

Tamariz adarraren puntan
euri tantaren gardentasun borobilean
no future oihukatzen zuen kantuarien oroitzapenetan
zure baitatik ihes egiten zaizun geroa
irakurriko dizut.

Eric Dicharry



BABESLEA:



LAGUNTZAILEAK:

